

SARE-HEZKUNTZA GELAN / SARE-HEZKUNTZA BATZORDEA

Arduradunak: Marga Garizurieta/Itziar Izurieta

Ikusi prestakuntza ataleko eranskina

IKASTETXEKO SARE HEZKUNTZARAKO HELBURUAK

Proiektua zehaztean “Heziberri 2020” hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa kontuan izan dugu. Hau da, ditugun baliabide eta bitarteko guztiak era koherentean erabili eta norbanakoen eta taldeen inplikazio borondatezko kontzientea lortu. Horretan esperientzia dugu, IKTak bidelagun egiteko irakaslea bera berrikuntzak ematen dituen mesedetaz ohartu behar da.

Irakasleen formakuntzaren inguruan ondorengo hau kontuan izango dugu:

- Hezkuntzarekin lotutako jardueretan arreta jarriko da, eta irakaskuntza hartu behar du aztergai eta gogoetagai. Beraz, lan hildo bat aukeratzekoan gelan aplikazio zuzena izan beharko dituzten material didaktikoak sortuko dira.
- Konpetentzietan eta disziplinarako planteamendu orokorretan oinarritutako ikuspegia sustatuko da, errepikapenak sahietzuz eta globaltasuna eta globaltasunaren ikuspuntua erakutsiz.
- Eguneratze zientifikoa, didaktika eta hezkuntza antolaera lotuta joan behar dira eta era orekatuan tratatu behar dira.

Ikasleen beharren inguruan ondorengo izango dugu kontuan:

- Ikas-prozesu esanguratsua sustatu behar dugu.
- Erregistroren aldaketa lortu behar da: irakaskuntza berbalista batetik, talde edo banakako ikerketa-irakaskuntza batera pasatzeko.
- Irakasleak ikaste prozesuan elementu aktiboa bihurtuko da, bere ikasprozesuaren jabe bihurtuz.
- Irakasleak beraien ikaste prozesuko protagonistak izan beharko dute: informazioa bilatzen, aztertzen, hautatzen, lantzen, antolatzen, integratzen eta azaltzen.

Proiektuaren berariazko helburuak:

- Ikastetxeak dituen baliabideak aprobetxatzea, bai irakaslearen lana errazteko, baita ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak hobetzeko.
- Informazioa bilatzeaz gain, aztertzea, hautatzea, antolatzea eta integratzea.
- Gaitasun digitalak indartzea (bai ikasle bai irakasleonak).
- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen neurria egokitutako tresna errazak eta eraginkorrak erabiltzea eta geureganatzea hezkuntza prozesuan islatzeko.
- IKT euskarriko (objektu digitalak, simulazioak, bideoak...) materialak aztertzea, erabiltzea eta ikaste prozesuan eraginkorrak izan badira programazioetan txertatzea.
- Ikasgai ezberdinen helburuekin lotutako material didaktikoak prestatzea eta ahal izanez gero disziplina ezberdinetakoak elkarrik lantzea ere.
- Irakasleek tresna desberdinen erabileran trebatzea eta hauek eguneroko gelako lanean txertatzea.
- Irakasleei proiektu hau aurrera eramateko formakuntza berariazkoa eskaintzea, bai ikastetxeko baliabideak aprobetxatuz (IKT arduraduna edo horretan trebatuta dauden irakasleak) bai kanpokoak.
- Beste ikastetxe batzuetako proiektu berritzaileak ezagutzea eta lan kolaboratiboak sustatzea, baita gure aurrerapenak ezagutaraztea ere.
- Argitaletxeekin harremanetan jartzea eta zernolako plataforma digitalak sortzen ari diren aztertzea hurrengoko ikasturtean “liburuak”/ baliabide digitalen aukeraketa egin baino lehen.
- Lankidetzako eta elkarlana bultzatu, ideien trukaketa erraztuz, giza jarrera egokiak sendotuz.
- Irakasleon artean SHG proiektua zabaltzea eta elkarlana ahalbidetzea batzordearen eta departameto batzarren bitartez.

SARE HEZKUNTZA GELAN.

2016-17 ikasturteko ereduari jarraipena emanez, sakonduko da ikasturte horretan hasitako bidea, bai prestakuntza arloan, zein ikasleekin esperimentazio arloan.

Ikasleekin ezarpena:

- DBHko 2. mailako talde guztietan eta DBHko 3. mailako 3C taldean ikasle bakoitzak bere gailu propioa du (Chromebook, i-Pad, tableta, ordenadore portatila...)
- Ikasgai guztietan aplikatuko da

Ikasle-kopurua:

- 2DBH, 5 taldetan banatuta guztira: 104 ikasle
- 3C taldean: 23 ikasle

Parte hartuko duten irakasleak:

	DBH 2A	DBH 2B	DBH 2C	DBH 2D	DBH 2E	DBH 3C
Euskara eta Literatura	M ^a Angeles Azkarate	Pedro Goenaga	M ^a Angeles Azkarate	Ziortza Vega	M ^a Angeles Azkarate	Ziortza Vega
Gaztelania eta Literatura	Alazne Erdozia	Alazne Erdozia	Amaia González	Alazne Erdozia	Alazne Erdozia	Lourdes Amenabar
Ingelesa	Amaia Gabiola	Amaia Gabiola	Marta Kaperotxipi	Marta Kaperotxipi	Olatz Olaeta	Carlos Anta
Geografia eta Historia	Yolanda Larrea	Yolanda Larrea	Yolanda Larrea	Yolanda Larrea	Yolanda Larrea	Bittor Lasa
Matematika	Jon Uitzzi/ Rocio Fdez	Celia Munitxa/ Rocio Fdez	Jon Uitzzi/ Andoni A./ Rocio F.	Gorka Ostolaza / Andoni A./ Rocio F.	Itziar Kerexeta/ Andoni Arrizabalaga/ Rocio F.	Idoia Goikoetxea / Bittor Duce
Teknologia	Gloria Agirrebeitia	Gloria Agirrebeitia	Gloria Agirrebeitia	Gloria Agirrebeitia	Urko Lartitegi	Angel Dordio
Gorputz Hezkuntza	Iñigo Cañete	Oskar Alberdi eta Iñigo Cañete	Oskar Alberdi eta Iñigo Cañete	Oskar Alberdi eta Iñigo Cañete	Oskar Alberdi eta Iñigo Cañete	Goretti Etxegibel
Balio Etikoak	Ainara Balerdi	Ainara Balerdi	Ainara Balerdi	Ainara Balerdi	Ainara Balerdi	Alexander Manzano
Musika	Marga Garizurieta	Marga Garizurieta	Marga Garizurieta	Marga Garizurieta	Marga Garizurieta	Cristina Aranceta
Fisika-Kimika	Itziar Izurieta	Josean Gorostiza	Itziar Izurieta	Josean Gorostiza	Maite Aldazabal	Gorostiza
Biologia-Geologia						Amalia Gorostidi
Plastika	Ruth Gandarias	Maite Arin	Maite Arin	Maite Arin	Maite Arin	Marisol Bollar

Aukerako ikasgaiak:

	2. DBH	3. DBH
Robotika	Angel Dordio eta Iñigo Unzueta	Iñigo Unzueta
Frantsesa	Elena Arteaga eta Judit Zameza	Elena Arteaga eta Judit Zameza
Informatika	Inma Arteaga eta Gorka Ortiz	Hodei Uriarte
Artisautza		M ^a Sol Bollar eta Angel Dordio
Diseinu tailerra	Aitor Bilbao	

Gelan beharrezko baliabideak:

Baliabideak: Gailu bana, Wifi sarea,

Erabiliko den/diren material pedagogikoa(k):

- Google Play eta, Apple Storeko aplikazio ezberdinak
- Liburu digital interaktiboak
- Moodle eta Google Suite plataformak
- REAk (irakas-baliabide irekiak)